III. KAPITULUA
LANALDIA ETA ORDAINSARIAK

14. Artikulua. Lanaldia.

Urte bakoitzeko lanaldi efektiboa 1.690 ordukoa izango da, eta lanaldiaren banaketa irregularraren arautzea egingo da urte amaieran, hitzartutako lanaldia burutzeko xedearekin. Lanaldi txikiagoak hitzartuta dituzten enpresek, langilearentzat onuragarriagoa den lanaldia mantenduko dute.

Horretarako, erabiltzaileekin zuzenean izandako esku-hartze orduak nahiz txostenak prestatzen jardundako orduak, koordinazio-orduak eta zerbitzuen arteko bidaia-orduak, lan egindako denboratzat hartuko dira.

Enpresa bakoitzak, eta betiere zerbitzu bakoitzaren espezifikotasunaren arabera, zuzeneko esku-hartzean jardundako gehienezko ordu kopurua ezarriko du.

Lanaldia langilea lanpostuan dagoela hasi eta bukatuko da.

15. Artikulua. Ordainsariak

			URTEKO OINARRIZKO SOLDATA (EURO)	OINARRIZKO SOLDATA/ 14 HILEKO (EURO)
1. TALDEA	1. Maila	Talde-koordinatzailea	32.700-	2.335,71.-
	2. Maila	Gainbegiralea Psikologoa	29.700.-	2.121,43.-
	3. Maila	Hezitzailea Gizarte-langilea	24.000.-	1.714,29.-
	4. Maila	Zaintzaile beilaria Teknikari Laguntzaileak Hezkuntza-teknikari laguntzaileak Familia-zaintzailea Segurtasun-monitorea	19.550.-	1.396,43.-
	5. Maila	Etxeko jaun/andre hezitzailea	19.200.-	1.371,43.-
2. TALDEA	1. Maila	Administrazioko langileak	19.200.-	1.371,43.-
	2. Maila	Garbitzaileak eta sukaldariak	17.750.-	1.267,86.-

Oinarrizko soldata honen gainean hainbat osagarri aplikatu ahal izango da. Erakundeek beren langileekin zehaztuko dituzte osagarriak eta kopuruak.

IV. KAPITULUA

16. Artikulua.- Enpresaren subrogazioa.

Administrazio Publikoarekin egindako lehiaketa publikoetan eta lankidetza-hitzarmenetan, hitzarmen hau ezarriko den erakundeetako zerbitzu edo programa batean titulartasunaren galera sortuz gero, programa-zerbitzuaren erantzulea den erakunde berriak, bitarteko edo produkzio-unitate horretan lan egiten zuten langileei buruzko betebeharrak eta erantzukizunak subrogatuko ditu.

Horretarako, zerbitzuak edo programak jarraipena duela kontuan hartuko da, zerbitzuaren xedean Administrazioaren araberako proposamena dagoen bitartean. Hitzarmeneko batzorde misto paritarioa arduratuko da zerbitzuak edo programak jarraipena duen ala ez balioesteaz. Bi alderdien gehiengoaren bidezko akordiorik lortu ezin bada, PRECOra joko da auzia ebazteko.

Enpresa edo erakunde esleipendun eta erantzule berriak zerbitzu hori ematen ari ziren langileen lan-kontratuak subrogatu beharko ditu, haien kontratazio-modalitatea eta enpresa ordeztuaren esleipenaren aurreko hiru hilabeteetan izan dituzten eskubide eta obligazioak errespetatuz, betiere horiek legezko itun eta akordioen ondorio badira.

A) Langileen subrogazioa honako langile hauei dagokienez gertatuko da soil-soilik:

1. Jardunean dauden langileak, kontratuaren esleipena gertatzen deneko egunaren aurreko azken sei hilabeteetako gutxieneko antzinatasunarekin kontratuaren xede den zerbitzuan.

2. Berarentzako lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak, jarduera esleitzeko unean gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna badute jarduera horretan.

3. Langile hasi berriak, dokumentu bidez egiaztatutako Administrazioak eragindako zabaltze baten ondorioz jardueran hasi direnak, jardueraren esleipen berriarekiko aurreko sei hilabeteetan.

CAPÍTULO III
JORNADA Y RETRIBUCIONES

Artículo 14. Jornada.

La jornada anual efectiva de trabajo será de 1.690 horas, con regulación de la distribución irregular de la jornada al objeto de que se complete al final del año la realización de la jornada pactada. Las empresas que tengan acordadas jornadas inferiores mantendrán la jornada más beneficiosa para la trabajadora o trabajador.

A estos efectos, se entenderá como tiempo de trabajo tanto las horas de intervención directa con las personas usuarias, como las horas de preparación de informes, las de coordinación y las de desplazamientos entre servicios.

Cada empresa y en función de la especificidad de cada servicio, establecerá el numero máximo de horas en intervención directa.

El comienzo y finalización de la jornada será en el puesto de trabajo.

Artículo 15. Retribuciones __207__

			SALARIO BASE/AÑO (EUROS)	SALARIO BASE/ 14 MENSUALIDADES (EUROS)
GRUPO 1	Nivel 1	Coordinador/a equipo	32.700-	2.335,71.-
	Nivel 2	Supervisor/a Psicólogo/a	29.700.-	2.121,43.-
	Nivel 3	Educador/a Trabajador/a Social	24.000.-	1.714,29.-
	Nivel 4	Cuidador/a velador Personal técnico auxiliar Auxiliar técnico educativo Cuidador/a familiar Monitor/a seguridad	19.550.-	1.396,43.-
	Nivel 5	Amo/a de casa educativo	19.200.-	1.371,43.-
GRUPO 2	Nivel 1	Personal de administración	19.200.-	1.371,43.-
	Nivel 2	Personal de limpieza y cocina	17.750.-	1.267,86.- __F

Sobre este salario base es posible aplicar diversos complementos. Serán las Organizaciones junto con sus trabajadores las que concreten cuáles y su cuantía.

CAPÍTULO IV

Artículo 16. Subrogación empresarial.

En los concursos públicos y convenios de colaboración con la Administración Pública, en el supuesto de que se produzca la pérdida de la titularidad de un servicio o programa entre las organizaciones a las que le son de aplicación el presente convenio, la nueva organización responsable del servicio del programa se subrogará en las obligaciones y responsabilidades en relación a los trabajadores y trabajadoras que prestaban servicios en el citado recurso.

A estos efectos se considerará que existe sucesión en el servicio o programa cuando se mantenga sustancialmente la propuesta de acuerdo con la Administración en el objeto de servicio. La comisión mixta paritaria del convenio será la encargada de valorar si el servicio o programa tiene continuidad o no. En caso de no llegarse a acuerdo por mayoría de ambas partes se acudirá al PRECO para resolver la diferencia.

La obligación que contraerá la nueva empresa o asociación adjudicataria y responsable del programa será la de subrogarse en los contratos laborales de los trabajadores y trabajadoras que venían prestando ese servicio, respetando en todo caso los derechos y obligaciones que hayan disfrutado en los seis meses anteriores a la adjudicación[1] en la empresa o asociación sustituida, siempre y cuando éstos provengan de pactos y acuerdos lícitos.

A) Dicha subrogación de personal se producirá única y exclusivamente con respecto a las siguientes trabajadoras y trabajadores:

1. Personal en activo, con una antigüedad mínima en el servicio objeto del contrato de los últimos seis meses anteriores a la fecha de la adjudicación[1] del contrato.

2. Personal con derecho a reserva a puesto de trabajo, que en el momento de la adjudicación de la actividad tengan una antigüedad mínima de seis meses en la misma.

3. Personal de nuevo ingreso que por exigencia de la Administración, acreditada documentalmente, se hayan incorporado a la actividad como consecuencia de una ampliación, en los seis meses anteriores a la nueva adjudicación[1] de aquélla.